

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

## **KONTROL MOZIOA**

### **Jazzaldiaren antolaketa ereduari buruzkoa**

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko ekainaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Apirilaren 29an, Donostiako Alkateak jakinarazi zuen aurtengo Jazzaldia murriztagoa eta lokalagoa egiteko asmoa, Covid-19 pandemiaren eragina dela eta. Jazzaldiaren webgunean hau irakur daiteke:

*“... Heineken Jazzaldiak edizio txikiago bat egingo du. Kontzertu kopurua eta edukiera, biak murriztuko lirateke, baina ezaugarri nagusia mantenduz: Trinitate plaza. Tokiko publikoari eskainitako edizioa izango litzateke; batez ere, tokiko artistak programatuko dira eta, jakina, kontu handiz zaindu beharko dira osasun publikoa babesteko arau guztiak”.*

Hain hustu, egun batzuk lehenago, apirilaren 22an, EH Bildu udal taldeak ildo horretan doazen neurriak proposatu zituen: programazioari eutsi, osasunaren zaintzarako mugak kontuan izanik; kulturako profesional eta eragileekin adostu; bertako sortzaileak lehenetsi... Beraz, Jazzaldiaren eraldaketa hori gure taldeak proposatutakoen ildoan joango litzateke. Gainera, ekainaren 2an, jakin genuen Jazzaldiak ez duela Heineken transnazionalaren izena izango aurten, babesletzari hein batean eusten dion arren. Erabaki horren eraginez, Jazzaldiak bere izena berreskuratu du, eta bertakoagoa bilakatu zaigu.

Agintaldi honen hasieran, Donostia Kulturako administrazio kontseiluan babesletza ereduaz galdetu genuelarik, egiteko beste modurik ez dagoela esan zitzaigun. Ekainaren 15eko batzordean, berriz galdetu genuen babesletza ereduari buruz, ikusirik, orain, Covid-19ak erakutsi digula ez zela ezinezkoa, egin daitekeela tokiko sortzaileekin, tokiko entzuleentzat eta bere jatorrizko izenarekin antolatutako jaialdia, babesletza eskaini nahi duten enpresek baldintzatu gabe.

Kulturako zinegotzi ordezkariak, ordea, aukerak baino oztopoak ikusi zizkion babesle orohartzailerik izango ez lukeen Jazzaldi eredu bati.

EH Bilduren ustez, babesletza ereduak oinarri eta irizpide etiko batzuk ezarri behar ditu, Udalaren kontratazioko klausula sozialen ildoan joango direnak.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

**KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antola dezala udal taldeokin eta hiriko kultur eragileekin batera, Jazzaldiaren babesletza eredia aldatzeko aukeren inguruko gogoeta.

Donostia, 2020ko ekainaren 19an

Zigor Etxeburua Urbizu  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia